

B

BARREN

TOKIKOM



Moda geneetan

Eneko Iturbe, diseinatzailea

Apirilaren 26an

eskuratu CDa BERRIArekin zure kioskoan



+ 2€

Gernika (1937-2012)

MIKEL LABOA

Gernika (Lekeitio 4, 1972)

Bi bertsioren arteko elkarrizketa

- Lehen bertsiola 1974an grabatua.
Ahotsa eta gitarra: Mikel Laboa
- Azken bertsiola: 1999an zuzenean grabatua.
Orkestrazloa: Carlos Puig
Euskal Herriko Gazte Orkestra,
Donostiako Orfeoia
eta Mikel Laboa,
J. Antonio Sanz Alfaroren
zuzendaritzapean.

14 minutuko pieza berria



berria
elkar



**Justo
Arriola**

Bere burruka politikuarengaitik urte eta erdiko bahiketia sufritu ondoren, eta 30.000 euroko xantaia ordainduta bada ere, etxian juagu Ainara. Aupa Gaztia!



**Arkaitz
Irureta**

Herriko eraikin historikuak babesteko borrodatia daukala entzun bihar alkatari! Etxiak, poligonoak, depuradora eta rotondak egiteko ez jok ba hórren konserbazian enpeño askorik jarri; hildakuak ere zementupian laga ez jaittuanian.... Ahaztuta dagoaz jeltzaliak Praileaitzen aferaz? Eta ez nauk kendu leiken pintada batetaz ari!

Are gehiago, ondare naturala ez al dok ondare historiko eta kulturalaren zati?

Sinistu leike hiru pintada kentzia 20.000€ kostatu dala? Dioken moduan, gustoko ez diran kartel garbiketa dagok gastuan atzian! Akordatzen Jakobaren hitzaldiko kartelak egunian bertan kendu, eta aldamenian zaozenak laga jaittuen hartan?

“Ezetz ikur frankistak eta piparpotua pintadak bezain bizkor kendu”

Guassekua edo bizikleta elektrikuena bezelako negozio kaxkarran desbideratzen dok hemen dirua; herri-erabilleran pentsatu orde z propagandan, hor zuluua! Ta bittartian beste batzuk bizikletaz lanera bizitza arriskatzen. Cabacasekin gertatu antzera, ikusten genduana pasatu arte ez juek aurpegixa garbittu bihar gai honetan ere?

Ezetz ikur frankistak eta piparpotua Arnaldoren kartela edo pintadak bezain bizkor kendu; norbaittek apustu egin nahi?

Argumentu ahulak eta Bildu-rra igarri jioat neuk ere. Kanpaña egiteko edozerk balixo omen jok, eta hori gutxi balitz, protagonista hartu nahixa gaiñera. BARREnek ere Ainararen etorrera notizian pintadak garbitzian kostua aipatziak harritu nau, halere.

Ba ez ba, orainguan protagonista Ainara da, barka Alfredo! Aupa gaztia, ongi etorri!

“Zergaittik bete bihar jok haiñ otzan Udalak banderen legia eta ez memoria historikuarena?”

Jakingok -nola ez-, Piru, Naparruaren konkistaren 5. mendeurrena gure arpegixan igurtzitzeko-edo, udaletxian Espaiñiako bandera jarri bihar juekela. Zergaittik bete bihar jok haiñ otzan Udalak banderen legia eta ez memoria historikuarena? Izan ere, oiñ arte diktadura frankistaren ikurak Elgoibarko kaleetatik kentzeari ezetza eman juek lasai asko. Sinbolikua, oso.

Laster ezkontza gehigarria

Publizitatea egin nahi baduzu
jarri gurekin harremanetan



943 744 112 – barren@elgoibarkoizarra.com



Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zaloa Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




EL GOBIERNO LESLEA



MENDAROKO UDALA



AIRE AIRE 0° ELGOIBAR



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Atez ate II

Hainbat gezur ari dira zabaltzen atez ateko zabor bilketaren inguruan. Urko Apaolaza hernaniarraren baimenaz hemen nagusienak:

Inposizio bat da. Izatekotan, Europako araudiak inposatzen du, organiko guztia berezita jaso behar dela baitio. Antolatuko al zenuke herrian erreferendumik pixa kalean egitea baimentzeko? Semaforo gorria saltatzea zilegi al da? Zergatik inposatzen zaio herritarrari zaborra kontenedoretara botatzea... eta etxeko leihotik bota nahi bado? Bere zaborra da, ezta? Kutsatzeko eskubiderik ez dugu, gure ondorengo biziari ari gare-lako. Gainera, orain arte agintzen egon direnek hainbeste erreferendum egin dutenez, bozka peltxotan aurreztuko genuke krisi bete-betean.

Garestia da. Ez bost kontenedoreko sistema baino garestiagoa. Biltzea garestiagoa da lan-esku gehiago behar delako (lanpostu gehiago ere bai); baina birziklatzen dena askoz gehiago denez, eta zabortegira (edo balizko errauskailura) botatzen dena askoz gutxiago, diru iturri oparua bihurtzen da eta konpentsatzen du. Hernanin hilerero 47.000 euro aurrezten dira zabortegira askoz tona gutxiago botatzen direlako. Badakizu zenbat gastatuko den errauskailuarekin? Iturri batzuen arabera, 1.000 milioi euro!

Organiko gehiegi bilduko da. Organiko asko biltzea ez da txarra, organiko hori ezin konpostatzea da txarra. Azpeitiko Lapatxeko konpostatze plantan bere gaitasunaren bikoitza jasotzen dute uneon. Alternatiba moduan Nafarroara eta Lapurdira eramango du Gipuzkoako Aldundiak oraingo materia organiko hori. Gipuzkoako hondakinen planak hiru konpostatze planta aurrekusten ditu, baina errausketa-zaleen interesak medio, bat besterik ez da egin.

Mendaro Zero Zabor

Esker onez

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkizuegu Mendaroko II. Mendi Lasterketa babestu duzuen guztioi: Mendaroko Udala, Altzolako Urak, Diario de Noticias, Norbega, Uztargi eta Lerun tabernak, Morroskillo, Art Fruit eta Coviran dendak, eta Iriondo Kirolak, GYS Astigarraga Sport eta Askasibar Intersport kirol dendak.

Eskerrak asko, era berean, batera zein beste-

ra proba hau antolatzen lagundu diguzuen guztioi. Mila esker ibilbidea bera aukeratzen eta mar-katzen lagundu zeniguteno, bide bazterrek zain-tzen egon zineteno, anoa postuetan egotea ego-kitu zitzaizueno, baserritarro, lasterketa zuen lur sailletan barrena pasatzeko inolako trabarik ez jartzeagatik, Azibar aroztegiari eta losu Juaristi ar-gazkilariari. Eta zer esanik ez, eskerrak beroenak zuei, partehartzaileoi, lasterketa hau antolatzen jarraitzeko indarra eman diguzuelako.

Mendaroko Txirindulari Elkarte

Zorionak Mendaroko txirindulari elkartekoei eta boluntarioei

Igandean jokatu zen Mendaroko II. Mendi Lasterketa. Eguraldi oso aldrebesa egin zigun benetan. Irteteko orduan bota zuen zaparradare-kin, bi aldiz pentsatzekoa izan zen etxera buelta-tu edo 25 kilometro luzeak egiten hastea. Hala ere, lerro hauek idaztearen arrazoia ez da korrika-lariok pasa genituenak kontatzea, baizik eta Mendaroko Txirindulari Elkartekoak zoriontzea egindako lanagatik. Ibilbidea oso ongi seinaliza-tua zegoen, eta postuetan nahi beste edari eta janari izan genuen. Eta zer esan berotan sartze-ko frontoian banatu zuten salda beroaz! Egural-diak batere lagundu ez bazien ere, dena prime-ran irten zen. Eskerrak, era berean, antolatzailerei laguntzen ibili ziren boluntarioei. Haiek bai meri-tua eguraldi harekin postuetan gure zain egotea-gatik! Besterik gabe, eskerrak asko, eta zorionak!!

Igor Ezenarro

Nerea Urbietari

Ez ditzagun gauzak nahastu. Nire asmoa ez da alkatea defendatzea, baina pintada hori ez dago inondik inora justifikatua. Denon artean ja-kina da Ainarak igarotako egoera oso latza izan dela bai berarentzat zein bere inguruko guztien-tzat, baina pintada horrek herriari egiten dio kal-te, azken finean denon diruarekin garbitu behar delako herriarentzako onuragarri izan daitezkeen beste proiektu batzuk deuseztuz. Eta sentimen-duak adierazteaz mintzatzen zarenean, nire us-tez, beste hainbat era daude sentimenduak aza-leratzeko. Zuk esan bezala, Herria herriarena da, eta denon artean zaindu behar dugu.

Miriam Beristain

Elgoibarko Udalak okela eta arraina erosteko tupperrak banatu ditu plastiko gutxiago erabiltzeko helburuarekin, eta dagoeneko 2.160 tupper pare banatu ditu.

Zer iruditzen zaizu Udalak hasitako tupper kanpaina?



Teresa Alonso
53 urte

Oso ondo iruditzen zait. Badakit johan zen asteen banatu zituztela tupperrak, baina ezin izan nituen hartu. Hala ere, oraindik badago tupperrak hartzeko aukera, eta joango naiz bila. Sistema garbia da, eta elikagaiak hobeto kontserbatzen dira. Usain gutxiago botatzen dute, gainera.



Pilar Perez
83 urte

Oso ondo dago, baina nire ustez tupperrak handiegiak dira. Erosketen poltsan bi tupperrak sartuz gero, ez da beste ezer kabitzen, eta normalean, beti izaten dut gauza gehiago erosteko beharra. Baina plastikoa eta papeira aurrezteko sistema egokia dela iruditzen zait.



Aintzane Sanchez
63 urte

Idea ona da. Neuk ere hartu ditut tupperrak, eta oraindik behin bakarrik erabili baditut ere, sistema ona iruditzen zait. Erraza da erabiltzeko, eta ondo moldatu naiz. Plastikoa gutxiago erabiliko da modu horretan, eta horixe da sistema honek daukan abantailarik handiena.



Isabel Tena
54 urte

Alde ekologikotik ondo iruditzen zait, zabor gutxiago sortzen delako. Nik oraindik ez ditut tupperrak hartu. Denbora gutxi da kanpaina martxan jarri dutela, eta oraindik izango dut tupperrak eskuratzeko aukera. Hartuko ditut, eta neu ere hasiko naiz erabiltzen.

■ SEMAFOROA



Txakurren gaineko ordenantza berria gehiegizkoa da: “Txakurrek jolastu egin behar dute, eta lotuta eramanez gero, ezin dute. Ordenantza berria gehiegizkoa da. 4:00etan irten nintzen txakurra ateratzera, eta udaltzain batek txakurra lotzeko eskatu zidan. Ez zebilen inor kalean! Txakurrak askatzeko parke bat eskatzen dugu txakur jabeok. Bestela, ordutegi bat zehaztu dezatela, eta kalean jende gutxi dabilen orduetan solte eramateko aukera eskatzen dugu. Txakurra atera behar dugun bakoitzean ezin gara mendira joan”.

Ez dugu nahi goizaldera arte zabalik egongo den tabernarik gure auzoan: “Pedro Muguruzako bosgarren zenbakian taberna berri bat irekitzeko lizentzia eman dute, eta esan digutenaren arabera, festetan eta asteburuetan 6:00ak arte zabalik egoteko baimena izango du. Ez dugu uste horrelako negozio bat jartzeko leku aproposa denik hori; izan ere, San Lazaro egoitza lokal horren aldamenean dago, eta ingurune horretan jende asko bizi da”. Ricardo Garate hirigintzako arduradunarekin jarri da harremanetan BARREN, eta hona beren erantzuna: “Lizentziak eskatu dituzte eta proiektua publiko jarri dugu. Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailak eta Foru Aldundiko Ingurumen Sailak informe bana egingo dute, eta erakunde horiek ezarritako neurriak betetzen badira, Udalak baimena eman beharko du, eta legea betetzen dela zaindu”.



Txalo bero bat Izarraitzeko Konkista antolatu zutenei: “Txalo bero bat eman nahi diegu Gaztelekuko eta Gaz-Tko hezitzaileei Izarraitzeko konkista antolatzen egin duten lanagatik. Oso ondo pasatu dugu, eta eskertuko genizueke berriz ere antolatzea”.



Egile Corporation XXI enpresako Eduardo Junkera eta Alfonso Urzainki urteko enpresaburu izendatu dituzte

Elgoibarko Alcorta enpresari Nazioartekotasun Saria eman diote

Industria eta Zerbitzu Enpresentza-ko Sariak banatu ditu Gipuzkoako Merkataritza Ganberak, eta Eduardo Junkera eta Alfonso Urzainki Mendaroko Egile Corporation XXI enpresa taldeko presidentea eta garapen teknologikorako zuzendaria aukeratu dituzte urteko enpresaburu. Horrez gain, Elgoibarko Alcorta enpresa ere saritu dute azken urteetan egindako lanagatik, eta Nazioartekotasun alorreko saria eman diote. Patxi Lopez lehendakariak banatu zituen sariak, eta Alcortako langile guztien izenean Lorenzo Mendietak jaso zuen.



Alcortako ordezkariak Patxi Lopez Jauriaritzako lehendakariarekin.

2,4 milioi euro emango ditu Aldundiak tokiko garapenerako

Foru Aldundiak, Martin Garitano Ahaldu Nagusia buru, Gipuzkoako enpresei emango dizkieten dirulaguntzak aurkeztu zituen martitzenean, IMHn. Gaindituz egitasmoaren bitartez, hogeit hamar milioi baino gehiago jarriko ditu aurtengo Aldundiak, eta horietatik 2,4 milioi euro eskualdeen garapenera bideratuko dira. Era berean, sei milioi euro erabiliko dituzte enpresentza-ko dirulaguntza zuzenak emateko. Aldundikoen esanetan, elkarlana izango da krisia gainditzeko giltza. “Krisitik denok irtengo gara, inor bidean utzi gabe”, esan zuen Garitanok.



Diabetes gaitza dutenentzako eta haien senideentzako hitzaldia

Gaixo Aktiboak egitasmoaren barruan, diabetes gaitza dutenentzako eta haien senideentzako hitzaldia antolatu du Osakidetza, datorren martitzenerako. Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da jardunaldia, 11:00etatik aurrera. *Gaixo Aktiboak* programa Estatu Batuetan sortu zuten orain dela hogeit hamar urte, eta gaixoen prestakuntza eta autozaintza du helburu. Programa horren barruan bi motatako ikastaroak eskaintzen ditu Eusko Jauriaritzako Osasun eta Kontsumo Sailak: Bate-tik, gaixoak formatzeko ikastaroa dago, euren gaitz berbera dutenei lagundu ahal izateko. Bestetik, gaixo bakoitzari gaitza hobeto ezagutzeko eta kontrolatzeko ikastaroa antolatu dute. Osakidetza Debabarreneko 48 gaixo formatu nahi ditu.

Buruko gaixotasunak dituztenen senideentzako ikastaroa

Agifés elkarteak buruko gaixotasunak dituzten pertsonen senideentzako ikastaroa antolatu du, Debabarreneko Udalen laguntzaz. Ikastaroa Elgoibarren izango da, eta lau saio eskainiko dituzte guztira: apirilaren 26an, maiatzaren 9an eta 24an, eta ekainaren 21ean. Besteak beste, buruko gaixotasunak zeintzuk diren, horri lotutako egitura sanitarioak eta soziosanitarioak, buruko gaixotasunak dituzten pertsonentzako babes juridikoak, haientzako gizarte baliabideak eta familiak egin ahal dituzten kontuak landuko dituzte ikastaroan. Saioak Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango dira, 18:30ean hasita. Ikastaroan parte hartzea doan da, baina ezinbestekoa da aurrez izena ematea. Horretarako edo informazio gehiago eskuratzeko Udaleko Ongizate Sailarekin jarri behar da harremanetan, 943 741 050 telefonora deituta.

Irudia **Espainiako bandera**



EAEko Justizia Auzitegi Nagusiaren agindua betez Espainiako bandera jarri dute Elgoibarko udaletxean, ibai alderako leiho batean. Joan zen eguaztenean jarri zuten bandera, Europako, Gipuzkoako, eta Elgoibarko banderen eta ikurriñaren artean. Alabaina, Elgoibarko Udalak jakinarazi du banderen ondoan plaka bat jarriko dutela, Espainiako bandera “zigorraren mehatxupean inposatuta” jarri dutela azaltzeko.

Berbia **Lanbide Heziketa**

Lanbide Heziketa sustatzeko jardunaldiak antolatu ditu Elgoibarko Udalak. Jardunaldi horietako protagonista nagusiak DBHko ikasleak izango dira. Astelehen eta martitzenean, tailer dinamikoak egingo dituzte Institutuan, Ikastolako DBHko 4. mailako ikasleentzat, eta gaur egungo gizarteak ezarritako estereotipoei buruzko hausnarketa egingo dute han. Eguazten eta barixakuan, berriz, Arreiturre Institutuko DBHko 4. mailako ikasleen txanda izango da. Jardunaldietan Isla galdaragintza enpresako arduradunek parte hartuko dute, eta gogoeta saioen ondoren, enpresa hori bisitatzeko aukera izango dute ikasleek.

Irudia **Otegiren aldeko elkarretaratzeak**



Bateragune auziko bost presoek —Arnaldo Otegi, Rafa Diez, Miren Zabaleta, Sonia Jazinto eta Arkaitz Rodriguezek— Espainiako Auzitegi Gorenaren erabakiaren zain jarraitzen dute, eta defentsak jarritako helegiteari Gorenak zer erantzun emango dion jakin bitartean, elkarretaratzeak egiten ari dira Elgoibarren, Arnaldo Askatu herri ekimenak deituta (joan zen astekoa duzue irudia). Aste honetan ere bildu dira Plaza Handian Arnaldo Otegi eta *Bateragune auzian* zigortutako gainerako lau lagunak aske lagatzeko exijitzeko.

Gaur egingo dira odol ateratzeak Elgoibarren

Odol ateratzeak egingo dira gaur Elgoibarren, 18:30etik 20:30ak bitartean, odol emaleek anbulategi ondoan duten lokalean. Odol premia handia dagoela ohar-tarazi dute arduradunek, eta dei egin diete herritar guztiei gaur odola ematera joateko. Hala ere, eta aurreko deialdian egin antzera, dei berezi bat egin diete 18 urtez gorako gazteei.

Enplegurako Prestakuntza Sistemaren berri emateko jardunaldiak, Debegesan

Ikaslan, Euskadiko Lanbide Heziketako ikastetxe publikoen Elkar-tea (Debabarreneko Armeria Eskola, Uni Eibar-Ermua, Mutrikuko Institutua, Meka Lanbide Eskola eta IMHk parte hartzen dute elkartean) plan bat garatzen ari da euskal enpresa eta langileen artean, enplegurako politika aktiboaren transferentziaren ondoren abiatu den Enplegurako Prestakuntza Sistema berriari buruzko informazioa zabaltzeko, eta kanpaina horren barruan, hiru jardunaldi antolatu dituzte gure eskualdean. Horietako bi langile eta langabetuei zuzendutakoak izango dira, eta beste bat enpresei zuzendutakoa. Interesatuak ondorengo ikastetxe hauetan eskura dezakete informazio gehiago: Armeria Eskola, Uni Eibar-Ermua, Mutrikuko Institutua, Meka Lanbide Eskola eta IMH.

Segoviara irteera antolatu du Haizeak

Segoviara irteera antolatu du Haizea emakume taldeak maiatzaren 19-20 astebururako. 19an, 7:00etan irtengo dira Elgoibartik eta domekan itzuliko dira, 21:00etarako. Bisita gidatua izango da, eta Pedraza, Segovia eta Sepulveda bisitatuko dituzte. Haizeako bazkide direnek 150 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 160. Interesatuak Pitxintxun eman behar dute izena.

Erretratu zaharra



1985

Aste honetako erretratu zaharra Kontxi Prietok laga digu. 1985eko Cafes Aitona txirrindulari taldea ageri zaigu erretratuan. Elgoibarko txirrindulari asko zeuden garai hartan taldean, eta makina bat sari irabazi zituzten. Gogora ditzagun zeintzuk diren argazkian azaltzen diren txirrindulariak:

Ezkerretik eskumara: Felipe (zuzendaria), Gallastegi, Arakama, Ganeza, Basalo, Askasibar, Sebastian, Jokin, Porru eta Julian (entrenatzailea).

AURREZTE
BIKOITZA



42"
LED TV

6000
USB DVI HD

HD READY
REAL CINEMA 21P
KONTRASTE 3.000.000:1
LG MODELOA 42" FT 353

399€

**INOX. HATZ
MARKEKEN AURKAKOIA**

NO FROST TOTAL



**MOULINEX MO3321
XURGAGAILUA**

**1600 W
BOLTSARIK GABE**



59'90€

COMBI SIEMENS KG36NVL20

MULTI AIR FLOW
SEGURTA-SUNEZKO
BEIRAZKO BANDEJAK
185x60x50 cm

749€

2012/04/30ra arte balio du, akats tipografikoa egon ezarri edo produktuen amaiera arte

MILAR

BIRE

Ubitarte 11
943 741 487
bire@milar.es

Hiru urterako Enplegu Plana abiatu du Elgoibarko Udalak, langabezia murriztu eta jarduera ekonomiko berriak sortzeko

Datorren eguaztenean aurkeztuko dute Enplegu Plana IMHn

Langabezia datuekin kezkatuta, hiru urterako Enplegu Plana jarri du martxan Elgoibarko Udalak hainbat enpresa, ikastetxe eta beste eragile batzuekin batera, langabe kopurua gutxitu eta herrian jarduera ekonomiko berriak sustatzeko asmoz. Enplegu aukerak aztertuko dituzte, eta lan merkatuaren beharren arabera prestakuntza eskainiko diete langabetuei. Izan ere, Elgoibarren lanik gabe dauden hamar lagunetik seik ez dute titulaziorik, eta horrek asko zailtzen die lana topatzea. Gaur egun, eta Udalak emandako datuen arabera, 691 langabetu daude, eta horietatik erdia baino gehiago, 357, emakumeak dira. Portzentajetara eramanda, %12koa da langabezia tasa Elgoibarren, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko batezbestekoa baino apur bat apalagoa, baina kezkarria, hala ere. Datorren eguaztenean aurkeztuko dute enplegu plana, IMHn.



Enplegu plana

Helburu orokorra langabezia murriztea da, baina hainbat adar ditu horrek: lan bila ari direnak prestatu, autoenplegua eta ekintzaitasuna sustatu, enplegu aukera berriak detektatu eta aprobetxatu, enplegua sortzen duten jarduerak sustatu, enpresen arteko elkarlana bultzatu eta enplegu politika orokorrak hemen bertako beharretara egokitu eta lana aurkitzeko zailtasunak dituztenei laguntzea. Hori guztia gauzatzeko, Elgoibarko Udalak, Debegesak, Lanbidek, eta gainerako eragileek Enplegu Mahaia sortu dute. Eta Elgoibarko egoera sozioekonomikoaren eta lan merkatuaren gaineko diagnostiko bat egitea izango da mahai horren lehenengo egitekoa. Langabetuen perfila egin eta haien premiak zeintzuk diren aztertu eta eragile dinamizatzaileen eskaintza zein den aztertuko dute lehendabizi, eta behin diagnostiko hori eginda, enplegarritasuna hobetzeko eta enpresen lehiakortasuna sustatzeko ekintzak diseinatu dituzte. Izan ere, Elgoibarren industria sektorearen pisua oso da garrantzitsua. Elgoibarren, industria sektoreak Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba osoan baino hogei puntu gehiago suposatzen du batezbeste. Zerbitzuetan jende gehiago ibili arren lanean, industriak baino balio gutxiago sortzen du sektore horrek.



Elgoibar Arreiture BHI

Arreitorre 2

Tel.: 943 748 397

E-posta: 013431aa@hezkuntza.net

www.elgoibarbhi.net

ELGOIBAR ARREITURRE BHI 2012-2013 IKASTURTEA



BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

GURASOENTZAT BILERA IREKIA: Apirilaren 25ean, 18:30ean
IKASLEENTZAT ORIENTAZIO BILERA: Apirilaren 25ean, 17:00etan
MEKAKO ARETOAN

Aurrematrikulako datak:
Maiatzaren 2tik 11ra



Nahiara Mugertza

Deparkel Debabarrenako Parkinsondunen elkarteko kide da Nahiara Mugertza. Gertutik ezagutzen du Parkinsona dutenen problematika, eta Parkinsonaren Nazioarteko Egunaren harira, berarekin bildu da BARREN, Deparkel elkartean egiten diharduten lana ezagutzeko. Eskualde osoan gaixoak hartzen dituzte Deparkeleko egoitzan, Eibarren. (www.deparkel.org / tlf.: 943 202 653).

Ainara Argoitia



Zenbat gaixo batzen dira zuen elkartean?

Parkinsonaren eraginaren gaineko estatistikak aintzat hartuz gero, Debabarrenan 150-200 kasu egongo lirateke, baina gurekin harremanetan jarri direnak berrogei bat dira. Horietako batzuk Deparkeleko bazkide dira, eta aldian-aldian etortzen dira hona, gure egoitzara, fisioterapia ariketak edo hemen eskaintzen ditugun bestelako zerbitzuak erabiltzera; beste batzuk, aldiz, informazio eske etortzen dira bakarrik.

Zer egiten zaie gogorren?

Zailena Parkinsona dutela onartzea izaten da, gaitz neurodegeneratibo bat dutela onartzea. Zaila da elkartera etortzeko pausua ematea ere, baina, bestetik, egia da etortzen direnak ez direla damutzen. Damutekotan, aurretik etorri ez izanaz damutzen dira. Gaitza diagnostikatzen dietenetik bi urte pasatzen dute sarri pauso hori emateko, eta askotan, senide baten bitartez iristen dira hona. Ez da erraza, baina gaixoek eta ingurukoek kontziente izan behar dute gaixo daudela onartzea dela gaitzari aurre egiteko bide bakarra. Parkinsona ez da sendatzen den gaixotasun bat, baina garaiz antzemanda eta profesionalen laguntzarekin, gaixoaren bizi-kalitatea hobetzeko bideak badaude, eta horixe da azken batean gure elkartearen egiteko nagusia.

Orain urte batzuk gure inguruan Parkinson aldaera jakin bat eragiten zuten gene bat antzeman zuten. Zertan da kontu hori?

Bai, Urola-kosta aldean familia bereko kide askok Parkinsona zutela

ikusita hasi ziren ikertzen. Parkinson mota asko daude eta horietako zenbait hereditarioak dira. Kasu hartan Parkinsonaren aldaera hereditario bat eragiten zuten genea aurkitu zuten hainbat familian, eta gene hari dardarina izena jarri zioten, euskarazko dardara hitzaren eratorria. [Gene horren mutazioak sortzen du Parkinsonaren Park8 aldaera hereditarioa, eta uste da Gipuzkoan aldaera hori Parkinsona duten gaixoen % 10-15ek dutela]. Dena den, argi laga behar da ingurumen faktoreek eragin handia dutela.

Parkinsona fase goiztiarrean antzematea ezinbestekoa dela diozu. Zeintzuk dira fase nagusiak?

Esaten da Parkinsonaren lehenengo sei-zortzi urteak nahikoa egonkorak izaten direla; etzei-bidaia hitza erabiltzen da fase hori izendatzeko, pentsa!. Parkinsona duzu, baina egunerokoan ez duzu igartzen, eta zure bizi-kalitatea ona da. Epe hori gainditzen denean hasten da gainbehera, eta orduan hasten dira sintomak agertzen. Tratamendu egokiarekin, baina, fase hori moteltzea lortzen da.

Zer da Parkinsondunek eurek gehien eskertzen dutena?

Fisioterapia, psikologia, logopedia... gauza asko lantzen dituzte hemen, baina beste gaixo batzuekin egoteak egiten die mesede handiena. Familian bakarrak izaten dira normalean, eta etxean ezin dute hemen topatzen duten babes hori sentitu. Hemen asko laguntzen diote elkarri, gure antzera daudenei ulertzea errazagoa zaigulako beti ere.

“Parkinsona ez da sendatzen, baina garaiz antzemanda eta laguntzarekin, gaixoaren bizi-kalitatea asko hobetu daiteke, eta hori da gure egiteko nagusia”

Imanol Goñi eta Maite Maiora nagusitu ziren domekan Mendaroko mendi lasterketan

Maite Maiora eta Imanol Goñi nagusitu ziren domekan jokatu zen Mendaroko II. mendi lasterketan. Euriak, kaskabarrak eta hotzak zail jarri zien oso korrikalariei, baina hala ere, 113 lagun abiatu ziren plazatik eta horietatik bi erretiratu egin ziren eta gainerako denek osatu zuten 24 kilometroko ibilbide malkartsua. Bai Maiorak (2:20:41) eta baita Goñik ere (1:53:48) errekorrak ezarri zituzten, gainera. Gizonezkoetan, Iñigo Lariz elgoibartarra hirugarren sailkatu zen (1:58:01), Valsecoko (Leon, Espainia) Manuel Merillas gaztearen atzetik (1:56:01). Lehenengo mendarorarrari zegokion garaikurra, berriz, Gotzon Zulaikak jaso zuen. Sailkapen nagusian hamaikagarren egin zuen Zulaikak, 2:08:17ko denborarekin. Argazki gehiago www.elgoIBAREN.net helbidean dauzkazue ikusgai.



Imanol Goñi iruñearra helmugan sartzen. Errekorra ezarri zuen gizonezkoetan.



Maite Maiora mendarorarra, hortzak estututa, aldatz gora.



Iñigo Lariz elgoibartarrak hirugarren egin zuen gizonezkoetan.



Korrikalariak, taldean, ibilbideko lehenengo aldapetan gora. Ibilbidearen gogorrak nork bere lekuan jarriko zuen gero.



Saridun guztiak, Ander Zulaika Mendaroko Txirindulari Elkarteko presidentearekin eta Sonia Garcia Mendaroko alkatearekin.



Eneko Iturbe aurrean eta bere arreba Ane, modelo lanetan Idotorben.

Getxo Moda diseinatzaile gazteentzako lehiaketako finalerako sailkatu da Eneko Iturbe diseinatzaile elgoibartarra, eta harro eta pozik dago egindako lanaz. Mutilentzako arropa lantzen hasteko gogoia sarri sentitu duela aitortu arren, gaur-gaurkoz neskentzako arropa diseinatzen du. Arkitekturan bilatzen du horretarako inspirazioa. Arkitektura itzel erakartzen duela nabarmendu du, bereziki arkitektura helbetiarrak eta Europa erdialdekoak.

Nolatan erabaki zenuen Moda Diseinua ikastea?

Oso gaztetatik argi neukan artearekin lotura zeukan zerbait ikasi nahi nuela, eta arropak sortzen ere laster hasi nintzen. Gero, baina, karrera bat aukeratzeko ordua iritsi zenean, kikildu eta diseinua ikastea erabaki ordez Publizitatea ikasteari ekin nion. Hala ere, publizitateko urtebete nahikoa izan nuen benetan diseinua ikastea nahi nuela erabakitzeko, eta hala hasi nintzen Bartzelonako eskolan.

Eta erabaki ona hartu zenuen?

Dударik gabe, bai.

Bi urte daramatzazu moda diseinua ikasten eta dagoeneko Getxo Moda diseinatzaile berrien lehiaketako finalerako sailkatu zara.

Bai, bi fase daude lehiaketan. Hasiera batean norberak bere lana aurkeztu behar du, eta gero, aukeratuz gero, finalerako sailkatzen zaituzte.

Nik hasiera batean lanaren gaineko informazioa baino ez nuen bidali: zerk inspiratu ninduen arropak diseinatzeko orduan, arropen nondik norakoak... hau da, proiektuaren fitxa teknikoa bidali nuen. Baina gero, aukeratu nindutenean, arropak josita bidali behar izan dizkiet pasarelan agertu ahal izateko.

“Egia da gehiago gozaten dudala neskenzako arropa sortzen, oraingoz behizat”

Eta zu zertan inspiratzen zara?

Arkitekturari begiratzen diot asko. Arkitektura da nire inspirazio iturri nagusia. Izan arkitektura modernoa, klasikoa edo dena delakoa. Orain gutxi, adibidez, *Structural fusion* izeneko proiektu bat egin dut, Sidneyko operaren edifikazioa oinarri hartuta. Arkitekturak berak itzel erakartzen nau, arkitektura helbetiarrak eta Europa erdialdekoak bereziki. Baina dena prozesu bat da. Esan nahi dudana zera da: leiho batean topa dezaket hasierako inspirazio hori, baina gero, akaso, leiho horrek leizezulo bat ekarriko

dit gogora, eta leizezulo hori izango da nire inspirazioa, edota kobako margoak edo... eta hala sortzen da kolekzioa.

Beraz, jendeak jaka bat ikusten duen lekuan zuk aurretik koba bat ikusi duzu.

Bai, edo beste edozein figura arkitektonikotatik abiatu zen sorkuntza, eta hori garrantu ostean sortu da arropa.

Finalerako aukeratu dituzten hamar lagunen artean mutil bakarra zara. Klasean ere berdina gertatzen zaizu?

Bai, klasean ere mutil bakarra naiz. Azken batean tradizionalki emakumeari lotu izan zaio gehiago moda kontu hau dena, edo arropen begiratzea edo itxura zaintzea, eta horrek eragina dauka mundu honetan. Gauza aldatzen doa poliki-poliki, baina oraindik kostatzen da.

Eta zuk norentzat diseinatzen duzu, neskenzatat eta mutilentzat, ala neskenzatat soilik?

Oraingoz neskenzatat bakarrik diseinatu izan dut. Gehiago kostatzen zait mutilentzat sortzea. Datozen bi urteetan aukera daukagu mutilentzako diseinuetan eta neskenzaketan jarduteko, eta sarritan pizten zait probatzeko gogoia, baina egia da gehiago gozaten dudala neskena sortzen, oraingoz behintzat.

Diseinuaren munduan modeloek badute euren pisua. Baina justu, sarritan, pisatzen dutenaren gainean eztabaida handiak sortu izan dira.

Izatez, diseinatzen dugunean, neurri estandarerrako egiten ditugu lanak, hau da, 38-40 neurrirako. Alabaina, egia da neska argalei begira diseinatzen dugula, lodiei begira baino gehiago. 54 neurriko arteko arropak ere sortu daitezke gero, baina guk ez dugu 44a hartzen estandar moduan, 38a baizik.

Esku artean daukazuna ikasi ostean, zertan gustatuko litzazuke lan egitea?

Ez dakit oraindik. Baina aukera uste duguna baino handiagoa da. Badirudi horrelako zerbait ikasten dabilzan guztiak famatu egitera iritsi behar direla edo bere izendun marka sortu beharra dutela, eta hori ez da horrela. Norbait farmazia ikasten hasten denean, inork ez du pentsatzen ikasketak bukatu eta bere laboratoriorik farmazeutikoa propioa sortuko duenik, edo ez dakit zerbait botika berri sortuko dituen... ba kasu honetan berdina gertatzen da. Ezagunak ez diren diseinatzaile on asko dago batean eta bestean lanean.

Zer da moda diseinua zuretzako?

Norbaiti azkar azaldu beharko banio moda diseinua zer den, esango nioke musikan edo antzerkian, zinean, eskulturan, edo pinturan bezala, sorkuntza lan bat dela, baina arkitekturarekin lotutakoa, faktore bereizgarri bat dauka: funtzionalitatea. Arropa gorputza estaltzeko da. Eta mila bariazio egin ditzake diseinatzaileak, baina kostako zaio praka bati mahuka bat jartzea, hanken lekuan ez ditugu-eta besoak. Eta, dudarik gabe, faktore garrantzitsu bat da hori diseinatzerako orduan; kontuan hartzekoa.

“Errazago diseinatzen dut neguko eta udazkeneko arropa, uda eta udaberrikoa baino”

Era guztietako arropak diseinatzen dituzu, ala badago bereziki lantzen duzun jantziaren bat?

Egia da orokorrean moda diseinatzerakoan soinekoak diseinatzeko ohitura handia dagoela. Soinekoak gorputz osoa estaltzen duelako izango da, eta, azken batean, nahikoa delako hori diseinatuta. Hala ere, niri txaketek deitzen didate atentzio handia. Eta horrez gain, denboraldiei erreparatuta ere, ez dakit ondo zergatik, baina errazago diseinatzen dut neguko eta udazkeneko arropa, uda eta udaberrikoa baino.

Getxo-moda lehiaketako gainerako finalisten lanei erreparatuta, nola ikusten duzu zure burua?

Uste dut maila handia dagoela gainerako lanen artean. Denetik dago, gainera. Badaude bilduma komertzialagoak edo esperimentazioetik jo dutenak edo beste hainbeste. Niri, bereziki, Japonian inspiratutako lan batek deitu dit atentzioa. Ikaragarri gustatu zait lan hori. Baina, beno, ikusi egin beharko da. Ni pozik nago iritsi naizen lekura iritsita, sorpresa handi bat izan zen niretzat, eta, beraz, pozik nago finalean nagoelako.

HARTU AURREA KOLONEKO MINBIZIARI

2009an hasi zuen Osakidetzak kolon eta ondesteko minbizia garaiz antzemateko kanpaina, eta orain dela bi hilabete ekin zioten kanpaina horri Debabarrenean. 50 urtetik gorakoak daude kanpainen parte hartzera deituta, baina Mendaroko Ospitaleko arduradunek ohartarazi dute uste zutena baino harrera eskasagoa izan duela deialdiak. Euren nahia ahalik eta jende gehienak parte hartzea da. **BARREN** sendagile horiekin batu da, gaixotasun honi buruzko informazioa jasotzeko.

Ainhoa Andonegi



Kolon eta ondesteko minbizia detektatzeko kanpainako lan-taldea: Sinesia Caballero, Leire Zubiaurre, Eva Zapata eta Ibon Bilbao.

Gipuzkoako, Arabako eta Bizkaiko herritarrei gehien eragiten dien minbizia da kolon eta ondestekoa, eta urtero 1.600 lagun baino gehiagori diagnostikatzeko diete gaixotasun hori. Emakumezkoen eragiten dieten minbizien artean bigarren lekuan dago, bularreko minbiziaren atzetik, eta gizonezkoetan ere bigarrena da, prostataren atzetik. Baina herrialde garatuetakoko populazio osoa kontuan hartuta, kolon eta ondesteko minbizia da herriarren artean ohikoena eta heriotza gehien eragiten dituen. Europan 400.000 bizilagunei diagnostikatzeko zaie gaixotasuna urtero, eta horietatik erdiek gainditzen dute gaixotasuna.

Hala ere, gaixotasun hau oso goiz detektatzeko aukera dago gaur egun, eta gainera,

garaiz antzematen bada sendatzeko aukera handia dago. Mezu hori zabaldu nahi du Osakidetzak, eta horregatik eragin nahi dute herritarren kontzientzian, kanpainen parte har dezaten. Mendaroko Ospitaleko medikuek esandakoaren arabera, oso garrantzitsua da prebentzio kanpaina honetan parte hartzea, sintomak agertu baino lehen antzematen delako gaixotasuna, eta kasu horietan %90eko aukera dago sendatzeko.

Zer da?

Kolon eta ondesteko minbizia heste polipo batetik sortzen da. Polipoak perretxiko itxurako grano txiki batzuen antzekoak dira, eta denboraren poderioz transformazio gaizto bat jasan dezakete, zelula txarrak sortuz. Denbora luzea behar da

horretarako, zortzi edo hamar urte inguru, horregatik dago aukera minbizia agertu aurretik antzeman eta sendatzeko.

Ikerketa asko egin badira ere, ez dago ziur jakiterik zerk sortzen dituen polipo horiek heste lodian. Arrazoi genetikoak izan daitezke batetik, kasuen %15-20 inguru herentziaz sortzen direla. Baina, bestetik, bizimoduak ere eragiten du, eta bereziki, elikadurak. Fruta eta barazki asko jatea gomendatzen dute sendagileek, zuntza duten elikagaiak ere mesedegarriak dira, eta haragi gorria gehiegi jatea edo elikagai koipetsuak kontsumitzea ez omen da gomendagarria. Kirola egitea, ez erretzea eta alkoholik ez edateak ere laguntzen du kolon eta ondesteko minbizia sahiesten.

Koloneko minbizia garaiz antzematen bada, sendatzeko %90eko aukera dago

KOLONOSKOPIA, POLIPOAK KENTZEKO SISTEMA


Kanpaina martxan jarri zutenetik 80tik gora kolonoskopia egin dituzte Mendaroko Ospitalean, eta "emaitza onak" ematen ari da kanpaina. Polipo asko kendu dituzte, gehienak minbizi aurreko egoeran, baina portzentaje txiki batean polipoak minbizi egoeran aurkitu dituzte.

Gorotzetan odola detektatzeko probak positibo ematen duen kasuetan egin behar den proba da kolonoskopia. Uzkitik kamera bat sartzen dute, eta heste lodian zehar zer dagoen ikusteko aukera emateaz gain, polipoak unean bertan kentzeko aukera ematen du. Polipo horiek analizatu egingo dituzte ondoren, eta minbizia dagoen kasuetan tratamenduari ekingo zaio. Bestela, kasuaren arabera, jarraipena egin behar da, eta hurrengo kolonoskopia noiz egingo den zehazteko polipo kopurua, tamaina eta anatomia patologikoa hartuko dira kontuan.

Metro bat pasa neurtzen du heste lodiak, eta normalean, 30-60 minutu irauten ditu probak. Gaixoari anestesia ematen zaio, eta ez du minik sentitzen proban zehar. Kolonoskopia egiteko ezinbestekoa da hestea garbi-garbi egotea, eta horretarako dieta zehatz bat egin behar du gaixoak, probaren aurreko bost egunetan. Hestean zikin-keria baldin badago ezin dute kamerarekin ezer ikusi, eta proba errepikatu egin behar izaten da. Izan dituzte horrelako kasuak, eta horiek sahiestu nahi dituzte. Benetan garrantzitsua da dieta hori ondo egitea, eta erizainak emandako dieta zehatz-mehatz egin behar da. Kolonoskopiari esker gaitzari aurre egiteko aukera handia dago, goiz detektatu daiteke. Sintomak agertu aurretik detektatzea da helburua, eta kasu horietan sendatzeko aukera handia da.



Kolonoskopia egiteko hestea garbi-garbi egon behar da, eta ezinbestekoa da dieta zehatz-mehatz egitea



Goiko irudian heste lodia, kamera barruan duela. Ezkerrean, berriz, polipoak ikus daitezke, eta kolonoskopia bidez nola mozten diren erakusten du irudiak.

Gaixotasuna garaiz detektatzeko proba

Kanpaina honetan 50 urtetik 69ra arteko biztanleek hartu dezakete parte. Izan ere, 50 urtetik aurrera kolon eta ondesteko minbizia agertzeko aukerak areagotu egiten dira, eta datuen arabera, hamar urteko epean bikoiztu egiten da ondesteko minbiziaren eragina. Horregatik, gaixotasuna garaiz antzemateko kanpainen parte hartzea "oso garrantzitsua" dela adierazi dute Mendaroko Ospitaleko sendagileek, oraindik sintomarik ez daukaten kasuak antzematea delako kanpaina honen helburua.

Detekzio goiztiarraren proba egiteko Osakidetzatik bidaltzen dute *kit* bat etxera. Gorotzen lagin txiki bat hartu eta ia odolik dagoen ikusi behar da. Begi bistara ikusezina den odola antzematen du proba honek. Etxean bertan egin behar da proba, eta ondoren, Osasun Zentroan utzi behar da, laborategian analizatu dezaten.

Eskutitz baten bidez bidaliko du Osakidetzak emaitza etxera. Emaitza negatiboa baldin bada, hau da, gorotzetan odolik ez badago, hortxe bukatzen da prozesua, eta bi urte barru errepikatu behar da proba. Aldiz, emaitza positiboa ematen badu eta gorotzetan odola baldin badago, kolonoskopia bat egin behar da, hestean zer dagoen ikusteko.

Osakidetzako sendagileek la-saitasuna transmititu nahi dute. Hasierako proba horrek positiboa eman arren, ez du esan nahi minbizia dagoenik. Beraz, herritarrei lasai egiteko mezua bidali nahi diete.

Deba, Mendaro, Eibar eta Elgoibarko 200 dantzarik dantza ikuskizuna eskainiko dute bihar, zapatua, Elgoibarren

Biraka dantza elkarteak antolatu du saioa, Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira

U rtero legez, eta Dantzaren Nazioarteko Egunaren harira, Biraka dantza elkarteak dantza barra ikuskizuna prestatu du. Mendaron egin dute azkeneko bi urteetan, eta bi aldietan udaletxeko plaza txiki gelditu da ikuskizunera batu-tako jende guztia hartzeko. Aurten, baina, Elgoibarren eskainiko dute dantza saio hau, bihar, zapatua, Plaza Handian. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da emanaldia, eta hogeita hamar minutuko iraupena izango du, antolatzaileek aurreratu dute-nez.

Josu Mujika koreografoak zuzenduko du biharko emanaldia, eta Deba, Mendaro, Eibar eta Elgoibarko 200 dantzarik parte hartuko dute. Aurretik, Munduko beste hainbat lekutan egingo duten bezala, Dantzaren Nazioarteko Eguneko eskutitza irakurriko dute.



Aurten, Sidi Larbi Cherkaoui dantzari eta koreografo belgiarrak idatzi du gutuna. Ondoren, ikasleek dantza eskoletan ikasi dutena jendaurrean erakutsiko dute.

Antolatzaileek aurreratu dute euria

egiten badu, udaletxeko arkupeetan egin beharko dutela dantza barra ikuskizuna, baina dantzari guztien ordez hogeita hamarren batek bakarrik jardungo dutela dantzan.

‘Wilt, panpina puzgarriaren hilketak’ antzezlanak eskainiko du gaur Ados taldeak Herriko Antzokian

Wilt, panpina puzgarriaren hilketak ikuskizuna taularatuko du Ados taldeak gaur Elgoibarko Herriko Antzokian. Garbi Losadak zuzenduta, Mikel Laskurain, Isidoro Fernandez, Aitziber Garmendia, Miren Gojenola, Koldo Losada eta Fernando Ruiz aktoreek jardungo dute eszenatikian, itxaropena galduta duen Henry Wilt izeneko gizonaren gorabeherak antzeztuz. Emaztearekin zoriontsu ez den gizona da Wilt, eta egunero txakurrarekin egiten dituen ibilietan aurkituko du ihesbidea. Antzezlan entretenigarri eta bizi honetan elementu ezberdinak tartekatzen dira, tartean polizia ikerketa aldrebesa eta beste hainbat egoera surrealista.

Tom Sharpe komedia arloan bereziki literatura garaikidearen erreferente ezinbestekoa izan denaren obran dago oinarrituta antzezlan hau. Sharpek hamar milioi liburutik gora saldu ditu, eta bere obra hogeita bi hizkuntzataraz itzuli izan da.



Antzezlanak 20:30ean hasiko da, eta sarrerak bederatzita eurotan eskura ditzaitezue Servikutxa kutxazainetan, www.kutxa.net webgunean edota 943 001 200 telefono zenbakira deituta. 90 minutuko antzezlanak da.

‘Ahatetxo itsusia’ estreinatuko du Glu-glu taldeak Elgoibarren

Galder Perezek zuzendutako *Ahatetxo itsusia* antzezlanak estreinatuko du Glu-glu produkzioak taldeak domekan, hilaren 22an, Elgoibarko Herriko Antzokian. 55 minutuko obra da, euskaraz. Bere kumaldi bereko ahatetxoengandik ezberdina den ahatetxo kume baten gorabeheren gainekoa da obra. Neba-arrebek baztertutako ahatetxo txiki honek etxeko girotik ihesi biziko dituen abenturak kontatuko dituzte. Bidean, hainbat lagun egingo ditu ahatetxo itsusiak, eta horien bitartez, munduan kolore guztietako lagunentzako lekua dagoen mezua zabalduko dute.

16:30ean hasiko da obra, eta sarrerak eguneko bertan jarriko dituzte salgai Herriko Antzokiko txarteldegian. Hurrek hiru euro ordaindu beharko dituzte, eta helduek 4,5 euro.

Zuhaitz Gurrutxagak kontzertua eskainiko du gaur zortzi, apirilaren 27an, Kultur Etxeko sotoan

Maiatzaren 26an Rosario Floresen aurretik joko du Zarauzko Udaberrifest jaialdian

Zuhaitz Gurrutxaga elgoibartarrak kontzertua eskainiko du Vanpopel taldearekin, Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan. Joan zen urrian aurkeztu zuen taldeak bere estreinako diskoa, eta ordutik kontzertuak ematen jardun du, han eta hemen. Hogei kontzertutik gora eman ditu dagoeneko, baina bazeukala Elgoibarren joteko gogoia aitortu du. Datorren barixakuan herritarren aurrean egingo du estreinaldia, 23:00etan.

Udaberrifest jaialdia

Martxan da jada Zarauzko Udaberrifest musika jaialdia, eta aurten ere hainbat estilotako musika kontzertuak entzun ahal izango dira. Horien artean Rosario Flores izango da izar nagusienetakoa. Lola Flores zenaren alaba gazteenak maiatzaren 26an



emango du kontzertua Zarauzko Udal kiroldegian, eta, Zuhaitz Gurrutxagak egingo ditu atari lanak, Vanpopel taldearekin. Antolatzaileek izen handiko taldeak lotu dituz-

te aurtengorako, "prestigio handikoak" nor bere estiloan. Rosario Floresekin batera, Soziedad Alkoholika, Bizardunak eta Gati-bu ariko dira aurten.

Musika eskolako ikasleak Miguel Sagastume soinu joleari egindako omenaldian izan dira

Miguel Sagastume soinu joleari egin zioten omenaldian hartu zuten parte Inazio Bereziartua musika eskolako ikasleek. Bergarako musika eskolak antolatu zuen ekitaldia, eta Bergarako Santa Maria eliza izan zen aukeraturako eszenatokia. Debarreneko eta Debagoieneko hainbat musika eskoletako soinu joleak izan ziren ekitaldian, eta guztira, ehun lagunetik gora musikari batu ziren omenaldian. Oihan Vega musikari eta telebista aurkezlea ere izan zen partaideetako bat, eta Elgoibarko ikasleek berarekin atera zuten erretratua.



Ikasleen ametsetako herria irudikatzen du lehiaketa

Amestu zure herria lehiaketa antolatu du Debegesak, Eskolako Agenda 21 proiektuaren barruan. Gure Balioak ekimenari loturik, errespetua, lankidetzeta, integritatea eta gaitasun ekintzailea sustatu nahi dituzte lehiaketa honekin. Lehiaketa bi kategoriatan banatuta dago, eta adinaren arabera ikasleek taldeka nahiz banaka parte har dezakete, mural edo horma-irudiak eta bideoak bidaliz, amesten duten herri edo hiri ideala irudikatuz. Muralak eta bideoak bidaltzeko epea apirilaren 30ean amaituko da, eta ondoren, bi aste epea izango du epaimahaia irabazlea aukeratzeko. Epaimahaia herritarrek osatuko dute, eta edonork izango du botoa emateko aukera. Lanak www.gurebalioak.com webgunean jarriko dira ikusgai, eta han egin ahal izango da bozketa.

Sanloko Tecnifuelle eta Alcorta senior taldeek Elgoibarren jokatuko dituzte mailaz igotzeko kanporaketak

IMH taldeak Euskadiko kadeteen finala jokatu du asteburu honetan Barakaldon

Tecnifuelle eta Alcorta senior taldeek etxean jokatuko dituzte igoera faseak. Neskek apirilaren 27tik 29ra bitartean jokatuko dute, eta mutilek, aldiz, maiatzaren 4tik 6ra.

Ohorezko zilarrezko mailara igoera du jokoan Tecnifuellek, Euskaldiko Liga irabazi ostean. Igoera fasean lau taldek hartuko dute parte: Tecnifuelle (Euskadiko txapel-duna), Sagardia (Kantabriako txapel-duna), Granollers (Kataluniako bigarren sailkatua) eta Chapela (Galiziako bigarren sailkatua).

Alcortak, berriz, maiatzaren 4tik 6ra jokatu du Lehen Nazional mailarako igoera fasea, eta ondorengo taldeek hartuko dute parte kanporaketan: Alcorta (Euskadiko bigarren sailkatua), BM Logroño



(Errioxako txapel-duna), La Garriga (Kataluniako bigarrena), eta Oberena (Nafarroako txapel-duna).

Kadete mailako finala

Asteburu honetan erabakiko da nor izango

den Euskadiko eskubalo txapel-duna kadeteen. Sanloko IMH taldearekin batera, beste hiru taldek jardungo dute lehia: Bera Bera Egia, Aiala Zarautz eta Zuazo Barakaldo. Barakaldon jokatu dute azken fasea, gaur hasi eta domekara bitartean.

Zuzendaritza berria aukeratzeko hauteskondeak CD Elgoibarren

Club Deportivo Elgoibarren zuzendaritza aldatuko dute aurten, eta horretarako hauteskondeak egingo ditu klubak. Interesatuak maiatzaren 18ra arteko epea daukate lehendakaritzarako hautagaiak eta zuzendaritzako lan-taldeak aurkezteko. Dokumentazio guztia klubak Mintxetan duen bulegoan entregatu daitezke, arratsaldez, astelehenetik ostiralera bitartean.

%15

MAIATZA ETA EKAINENKO SUSTAPENA

Friendo Santa Ana 4 eta 6 - Tel.: 943 741 234
Elgoibar (Gipuzkoa)

%5

Eraigarri tapizatutako kanapea

KANAPEA eta KOLTZOIA

HR Bisko koltzoia

PACK-NEURRIA	LEHEN	ORAIN	
135x190	1371€	779€	+ %5eko deskontua
150x190	1454€	829€	+ %5eko deskontua

%5eko deskontua gehitu ahal izango duzu sustapenak dituzten koltzoietan

%15era arteko deskontuak izan ditzakezu zure aurrekontuan!

Ikastolak Jose Gurrutxaga krosa antolatu du domekarako

16 urtetik gorakoentzako lasterketa indartu nahi dute



Datorren domekan, apirilaren 22an, jokatuko da XIX. Jose Gurrutxaga Krosa Elgoibar-ko kaleetan. Elgoibar Ikastolaren 50. urteurrena dela-eta, 16 urtetik gorakoentzako lasterketa indartzea nahi dute antolatzaileek, eta horretarako, guraso, ikasle-ohi eta elgoibartar zein mendarorak parte hartzea animatu dituzte. Nagusien izen-ematea egunean bertan egin ahal izango da, lasterketak hasi aurretik, Plaza Handian bertan.

Jaiotako urtearen arabera, lau txandatan parte hartuko dute lasterkariak. 10:30ean hasiko dira txikiak, eta 12:00etan azken taldea. Gainera, multzo bakoitzeko partaideek ibilbide ezberdina egin beharko dute. Azken lasterketan guztiak elkarrekin antxitxika egingo duten arren, kontuan eduki behar da, 1996an, 1997an, 1998an eta 1999an jaiotakoek itzuli bakarera egingo dutela eta 1995. urtetik gorakoek hiru itzuli. Guztira 13 lasterketa izango dira.

Sariak

17 urtetik gorako partaideen artean sariak banatuko ditu Elgoibar Ikastolak. Realak eta Racingek jokatuko duten partidarako bi sarrera jasoko ditu irabazleak, eta bigarren saria kirol poltsa bat izango da..

Mintxetako aparkalekuko gimnasioko makinak hondatu dituzte



Mintxetako aparkalekuan nagusientzako gimnasia aparatuak daude, eta aste honetan horietako bi hondatu egin dituzte. 2010ean jarri zituzten makina horiek, eta adinekoren artean estimazio handia dutela esan du Ramon Mujika Patronatuko zuzendariak. Horrez gain, makina horiek umeentzako ez direla jartzen duen oharrari askok ez diotela kasurik egiten gaineratu du, eta ume askok jolasteko erabiltzen dituztela gaineratu du, gurasoen baimenarekin.

EMAITZAK

FUTBOLA

Arenas 3 – Haundi 0 (3. maila)
Aretxabaleta 2 – Elgoibar 1 (Erreg.)
Aloña Mendi 2 – Elgoibar 1 (Aleb.)

ESKU PILOTA

Debarroko Txapelketa
Bergara 12 – Lagunak 22 (Nag.)
Lagunak 6 – Arrasate 22 (Jub.)
Lagunak 9 – Oskarbi 22 (Nag.)
Eibar 14 – Lagunak 22 (Jub.)

ARETO FUTBOLA

Colo Colo 1 – Concepto Egile Elg. 7 (2B)

ESKUBALOIA

Tecnifuelle Elg. 35 – Zarautz 34 (Sen. nes.)
Alcorta Elg. 32 – Usurbil 29 (Sen. mut.)
Txarriduna Elg. 21 – Bankoa Elg. 21 (Kad. mut.)

AGENDA

ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 21
18:00 Concepto Egile Elg. – Caspe (2B)

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 21
12:00 Elgoibar – Oiartzun (Ohorezko jub.)
17:00 Haundi – Vitoria (3. maila)
Domeka, 22
12:00 Elgoibar – Orioko (Nesk.)

ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Zapatua, 21
9:45 Bankoa Elg. – Udarregi (Inf. mut.)
11:00 Aterpe Elg. – Leizaran A (Inf. nes.)
12:15 Grupo Eibar Elg. – Bartolo jatetxea (Kd.nesk.)
20:00 Alkorta Elg. – Zarautz (Sen. mut.)

ESKU PILOTA

Barxakua, 20
21:15 Lagunak – Aretxabaleta (Aleb.)
22:00 Lagunak – Gure Txeru (Jub.)
22:45 Lagunak – Azkoitiako (Nag.)

Eskez binakako txapelketa antolatu du 10Bai taldeak

10Bai taldeak eskez binakako mutilen txapelketa antolatu du, hirugarren urtez. Zazpi bikotek hartuko dute parte guztira, eta gaur bertan jokatuko dituzte lehenengo partidak, Plaza Handian. Ulazia eta Beñatek osatutako bikoteak Agirrebeña eta Arrietaren kontra jokatuko dute, eta Basueta eta Markelek, berriz, Bastida eta Astiazaranen kontra. 18:00etan hasiko dira norgehiagokak.

LANA

ESKAERA

- Emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Esperientziaduna, Interna edo orduka egingo nuke lana. Paperak ditut. ☎ **664 182 488**
- Emakumezkoa pertsona nagusiak zaintzeko prest, edozein ordutan. ☎ **943 74 00 33 / 682 255 834**
- Emakume elgoibartarra eta euskalduna naiz. Lanerako prest. Esperientzia ugari daukat dendan, tabernan, umeak zaintzen... ☎ **661 972 484**
- Emakumea pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ **690 925 929**
- Emakumea egunez, orduka lan egiteko prest. ☎ **690 134 485**
- Gizonezkoa lanerako prest. Baserrilanean eta soldatzaile lanetan esperientzia. (B,C,D, eta E gida-baimenak ditut). ☎ **673 513 120**
- Erizain laguntzaile tituludun emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa lanak ere egingo nituzke. ☎ **680 386 064**
- Emakume gaztea umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Garbiketa eta sukaldeko lanak ere egingo nituzke. ☎ **686 052 084**
- Gizon gaztea lanerako prest. Zerbitzari eta sukaldari lanetan esperientzia. Pertsona nagusiak zaintzeko prest. ☎ **692 332 871**
- Emakumea pertsona nagusiak zaintzeko prest, gauetz, 20:00etatik 8:30ara. ☎ **634 007 292**
- Emakumea lan bila. Interna edo orduka ere egingo nuke lan. ☎ **652 446 228**

- Garbiketa lanak egingo nituzke, orduka edo interna. tabernak, lokalak, etxeak... Zaintza lanak ere egingo nituzke. ☎ **698 632 922**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **680 971 953**
- Gizonezkoak pertsona nagusiak zainduko lituzke; ospitalean ere bai. ☎ **645 555 265**
- Emakumea zaintza eta garbiketa lanak egiteko prest. Asteazken zehar eta asteburuetan, orduka edo interna. ☎ **698 632 922**
- Gizona zaintzan, garbiketetan edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **632 798 768**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Zaintza, garbiketa... ☎ **659 813 248**
- Emakumea lan bila. Interna edo orduka ere egingo nuke lan. ☎ **652 446 228**

ESKAITZA

- Lantegi bateko bulegoan lan egiteko neska bat behar da, harreman zuzena. Jardunaldi erdia. Curriculumak fax zenbaki honetara bidali. ☎ **943 756 112**
- Kamareroak eta sukaldari laguntzaileak behar dira, Eibarko taberna berri baterako. Euskaraz jakitea beharrezkoa da. ☎ **686 567 471**
- Klase partikularrak jasoko nituzke, ikastolako ikaslea izan den pertsona batengandik. ☎ **608 312 572**
- Dietista-nutritzailea behar da Elgoibarko enpresa batean lan egiteko. ☎ **618 259 343**
- Emakumea behar da pertsona nagusia zaintzeko. ☎ **670 555 294**

ETXEBIZITZAK

- Mendaron etxea alokagai, bi logela, komuna, sukaldaria, trastelekua etxe gainean, logela guztiak kanpora ematen dute, eguzkitsua eta altzariekin. ☎ **635 716 731**
- Etxebizitza alokagai Elgoibarren, Ubitartean. Etxe guztiz berria, bikote batentzat, bi logela, egongela, sukaldaria amerikarra; oso eguzkitsua. ☎ **943 742 442**

GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut kiroldegi parean. ☎ **678 779 386**
- Garajea salgai edo alokairuan. San Roken, kiroldegi parean. Itxia. ☎ **615 758 480**

BESTELAKOAK

- Urte beteko Schnauzer arrazako txakur bat oparitzen da. ☎ **654 406 648**
- CSR motorra salgai, 125 cc, 2008. urtekoa, 2400 Km. Maletategia eta hiru kasko. Urtebeteko segurua. ☎ **630 850 390**

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.
- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama

Martxoko irabazlea:
ALBA MANZANO

Apirileko saria:
MASAJEA

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26

CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak ezartzea
Lantekua: egut, aluminio, PVC
Pisua orokorra

San Roke, 7 behea
Pol. Glaso - Glasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloak
Tel. 943 749 676

GRUP
PAINALMI

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



• Zorionak, **Unax**, bihar 8 urte potolo egingo dituzulako. Maddi, Ane eta familiakoen partez.



• Zorionak, **Eider**, gaur 10 urte egin dituzulako. Ondo pasa eguna. Muxuak familiako guztien partez.



• Zorionak, **Maddi**, domekan 6 urte beteko dituzulako. Ondo-ondo pasa eta ia opari asko jasotzen dituzun. Muxu bat. Etxekoak.




• Zorionak, **Olatz**, gurre pitikinari, bere hirugarren urtebetetzean. Orain arte bezala jarraitu. Etxeko guztien partez, maitasunez.



• **Xabat**, 2 urte handi, dagoeneko! Egun ona pasatu zenuen, eta guk ere bai zurekin. Zorionak, bereziki, anaia Manexen partez.



• Zorionak, **Intza**, gaur urtebo bat egin duzulako. Segi horren alai eta irribarretsu. Muxu potolo bat etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Elene**, zure lehen urtebetetzean. Aitaxo, amatxo eta amamaren partez.



• Zorionak, **Ainara**, zure laugarren urtebetetzean. Etxekoan partez, besarkada handi bat.



• Zorionak, **Nahia**, apirilaren 15ean 3 urte egin zenituelako. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Nere**, gaur 5 urte! Muxu handi bat etxeko printzesari, bereziki, ahizpa Aneren partez.



• Zorionak, **Aitana**, zure zazpigarren urtebetetzean. Aiton-amona, osaba-izeba eta lehengusuen partez.



• Zorionak, **Naroa**, gaur 9 urte bete dituzulako. Familiakoen eta bereziki, Nahiaren partez. Muxu asko!



• Zorionak, **Markel**, asteazkenean 7 urte egin zenituelako. Bihotz bihotzez, muxu handi bat. Askok maite zaituzten senideen partez.



• Zorionak, **Santos**, 89 urte bete zenituelako. Muxu asko, familiakoen partez.



• Udaberria badator eta badoaz loreak loratzen. Zorionak, **Olaia eta Markel**, etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Lucia eta Jon**, zuen zazpigarren urtebetetzean. Muxu handi bat familiako guztien partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **4€**, argazki bikoitza **6€**, hirukoitza **8€** eta hiru lagunetik gorako taldeak **12€**.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra **3€**, argazki bikoitza **5€**, hirukoitza **7€** eta hiru lagunetik gorako taldeak **10€**.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKOBULEGORA**, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.



Apirilaren 26an
donutsak egiten ikasiko dugu!
17:30etik aurrera



Larunbat honetan,
Wii-an jolastuko dugu!
Etorri eta parte hartu!

20 barixakua

Kale kantariak

18:30 Entsegua

Kultur Etxeko sotoan.

Odol emailleak

18:30 Odol ematea

Odol emaleen lokalean.

Kultura

20:30 Antzerkia

Ados teatroak *Wilt, panpina puzgariaren hilket*a antzezlanaz taularatuko du, Herriko Antzokian.

21 zapatua

Dantza

18:00 Dantzaren Nazioarteko

Eguna

Biraka dantza taldeak antolatuta, dantza jaialdia egingo dute, Plaza Handian.

22 domeka

Kirola

10:30 Jose Gurrutxaga haur

krosa

Elgoibar Ikastolak antolatuta, Plaza Handian.

Kultura

16:30 Antzerkia

Glu Glu taldeak *Ahatetxo Itsusia* antzezlanaz taularatuko du, Herriko Antzokian.

23 astelehena

Artea

17:00 Arte tailerra

Arte tailerra antolatu du Haizeak. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

24 martitzena

Literatura

18:00 Literatura tailerra

Haizeak antolatuta, Charles Dickens idazlearen *Oliver Twist* liburua landuko dute, Gotzon Garate Udal Liburutegian.

Hitzaldia

19:00 'Askatasun haizea dabil'

Ezker abertzaleak antolatuta, Juan Joxe Petrikorenak emango du hitzaldia. Musika Eskolako auditorioan.

27 barixakua

Aisialdia

17:30 Kiribilka

2tik 6 urtera arteko umeentzat eta haien gurasoentzako egitasmoa. Plaza Handian.

Musika

19:00 Piazzola

Inazio Bereziartua musika eskolako auditorioan eskainiko dute kontzertua.

Musika

23:00 Vanpopel

Zuhaitz Gurrutxagak kontzertua eskainiko du, Kultur Etxeko sotoan.

OKINDEGIA

22 domeka FOTERO

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

20 Yudego
21 Zabaleta
Goizez: Etxeberria

22 Zabaleta
23 Barrenetxea
24 Ibañez
25 Garitaonandia
26 Etxeberria

Gauetz

22:00 - 9:00

Yudego
Etxeberria
Etxeberria
Barrenetxea
Garitaonandia
Garitaonandia
Etxeberria

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Intocable»

21, zapatua: 19:00/22:15

22, domeka: 19:00

23, astelehena: 21:30

«Intocable» Zuz.: Eric Toledano eta Olivier Nakache. Frantzia, 2011. Iraupena: 115 minutu. Generoa: Komedia, drama. Aktoreak: François Cluzet, Omar Sy, Audrey Fleuret. Parapente istripu baten ostean, Philippe aristokrata aberatsak espetxetik irten berri den Driss gaztea kontratatuko du berari laguntzeko. Bi mundu desberdinek talka egingo dute, eta elkar ulertzen ikasi beharko dute.



François Cluzet Omar Sy
Intocable

III. eta V. URTEURRENAK



JUANA BARRUTIA GABILONDO
eta
RAMON CANALES TRUEBA



Zuen oroimenak indartzen gaitu

2009ko apirilaren 16an hil zen

2007ko maiatzaren 2an hil zen

ESKERTZA



JOSE MARIA LARRAÑAGA ORBEGOZO

2012ko apirilaren 10an hil zen.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



I. URTEURRENA

EDURNE GABILONDO AIZPITARTE

“Gero eta gehiago botatzen zaitugu faltan”

Maitasunez, Amaia, Josu, Lurdes eta Jesus

I. URTEURRENA

EDURNE GABILONDO AIZPITARTE

*Esan gabekoak geratu zaizkigu
esandakoak, berriz, gogoan ditugu
zauden tokian zaudela
Edurne, maite zaitugu.*



*I. urteurreneko meza zapatuan, apirilak 21ean,
izango da arratsaldeko 19:00etan
Elgoibarko San Bartolome parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.*





OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

KEMEN BELARDENDA.

NATUROPATA, IRIDIOLOGOA ETA HOMEOPATA.

Belardietetika eta fitoterapia, janari biodogikoa, "Esencias Trinidad", BACH loreak... Kontsultak:

- Programazio neurolinguistikoa (P.N.L.)
- "DIETA FACIL", pisu kontrola
- Makrobiotika eta elikadura energetikoa
- Famili Konstelazioa (banakako eta taldeko saioak)
- Bioenergia
- Reflexo-energia (haurdunaldietan ere)
- Aurpegiko lifting japoniarra

Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

San Bartolome, 29 - Elgoibar
Tel: 943 744 031
Aurretiko zita

SANATANA DHARMA YOGA ELKARTEA

Anginei aurre egiteko masajea.

Astearte eta ostegunetan:
10-11:30 / 18-19:30 / 20-21:30
Mendaron astelehen eta asteazkenetan: 15:00-16:30

Urasandi, 9 - Elgoibar
Tel: 943 748 593 (ldoa)
685 722 131

ORTOPEDIKAK

ITZIAR SARASKETA

Egunero:
9:30-13:00 / 17:00-20:00

San Frantzisko, 12 - Elgoibar
Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Bartolome, 10 - Elgoibar
Tel: 943 743 734

UZURI

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria)

Egunero:
9:30-13:00 / 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar
Tel: 943 740 359

MASAJISTAK

VICTORIA IRAEGI

(Esku-terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).

Astelehenetik Ostiralera:
8:00 / 14:00

San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) - Elgoibar
Tel.: 943 740 770

PODOLOGOAK

OINBERRI

Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

Errosario kalea, 25- Elgoibar
Tel: 943 741 795

IÑIGO ARRILLAGA YUDEGO

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurriera egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

Orduetgia:
9:30-13:30 / 15:30-19:30

San Frantzisko, 20 behea
Tel: 943 741 645

FISIOTERAPIA

AINHOA FISIOTERAPIA

Fisioterapia eta osteopatia.

Jausoro, 6 behea.
Tel.: 943 531 953
669 565 745

C.R.F. ERREABILITAZIO ZENTROA BERRIAI Mediku azterketak esfortzu frogarekin.

(Partikularrei eta seguruen bidezko tratamenduak). Fisioterapia, kirol-fisioterapia, mesoterapia, elektroakupuntura, laser terapia, kinesio taping eta osteopatia.

Astelehenetik ostiralera:
8:00 - 13:00 / 15:00- 19:00

San Inazio, 2 - Elgoibar
Tel.: 943 743 374

fisio&más

Fisioterapia Aurreratua eta Kirol Berregokitzea

- Esku-terapia
- E.P.I.® (Tendinitis tratamendua)
- Esku Drainatze linfatikoa
- Mesoterapia

- KIROL BERREGOKITZEA
- OSASUNERAKO ARIKETA AGINDUA

Aupa Zen Medikuntza Estetika Zentroa
Jausoro Plaza, 1 - Elgoibar (Sta. Klaran, Udaletxeko zubitik gertu)
Tel.: 943 743 440

TX4 Fitness Gimnasioa
Iifar Kale, 3 - Eibar
Tel.: 667 953 628

HORTZ KLINIKAK

IRALE

Errosario Kalea, 7 behea
Elgoibar
Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com
www.irale.com

LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Harrentzako tratamenduak
- PADI

Elena Herrero Lobo medikua
Aita Agirre enparantza,
5 behea - Elgoibar
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

BEITIA ARRIOLA

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak

Trenbide kalea 21, behea
Elgoibar
Tel: 943 531 869

